

Bizkaiko Foru Aldundiaren \_\_\_\_\_/2018 FORU DEKRETUA urriaren 9koa. Honen bidez, zenbait aldaketa egiten dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudian eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan.

Foru-dekretu honen bidez, zenbait aldaketa egiten zaizkie Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiari eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduari.

Ondoren, labor azaltzen dira Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiari eginiko aldaketak.

Zenbait aldaketa egin dira arau hauetan: 2018ko martxoaren 21eko 2/2018 Foru Arauan (haren bidez, batetik, tributuen ondorioetarako karakterizatzen dira Europako zenbait epe luzerako inbertsio-funts, eta, bestetik, aldaketak egiten dira zenbait zergaren foru-arauetan zein Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arauan. Hauek dira aldatzen diren foru-arauak: Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergarena, Ondarearen gaineko Zergarena, Ondare Eskualdaketen eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergarena, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergarena eta Kooperatiben Zerga Araubidearena), Bizkaiko Lurralde Historikoaren Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 2013ko abenduaren 5eko 13/2013 Foru Arauaren 56.bis artikuluan lekualdatutako langileentzat jasotako araubide berezian. Bada, aldaketa horien ondorioz, zehazten da lanak zein kasutan diren bereziki kualifikatuak eta zein diren ikerketa- eta garapen-jarduerak, zientifikoak edo izaera tekniko edo finantzariokoak, haien aplikaziorako. Azkenik, eta araubide honi lotuta, zehazten da zein diren kenkarirako eskubidea sortzen dituzten lekualdatzearen ondoriozko gastuak.

Horrez gainera, izaera teknikoko aldaketak egiten dira, aukerak baliatzeari buruzkoa eta araudiari

DECRETO FORAL de la Diputación Foral de Bizkaia \_\_\_\_\_/2018, de 9 de octubre, por el que se introducen modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades.

El presente Decreto Foral introduce determinadas modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y en el del Impuesto sobre Sociedades.

A continuación, se exponen de forma sucinta las modificaciones que se incorporan al Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Como consecuencia de los cambios introducidos por la Norma Foral 2/2018, de 21 de marzo, por la que se caracterizan a efectos tributarios determinados fondos de inversión a largo plazo europeos y se introducen modificaciones en las Normas Forales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, del Impuesto sobre Patrimonio, del Impuesto sobre Sociedades, del Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados, del Impuesto sobre Sucesiones y Donaciones y del Régimen fiscal de Cooperativas, así como en la Norma Foral General Tributaria del Territorio Histórico de Bizkaia, y en relación con el nuevo régimen especial para trabajadores y trabajadoras desplazadas recogido en el artículo 56.bis de la Norma Foral 13/2013, de 5 de diciembre, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, se especifican los supuestos en los que los trabajos prestados se entienden como especialmente cualificados y se determina cuáles son las actividades de investigación y desarrollo, científicas o de carácter técnico o financiero a efectos de su aplicación. Por último, y en relación con este mismo régimen, se precisa cuáles son los gastos originados como consecuencia del desplazamiento que generan derecho a deducción.

Así mismo, se introducen modificaciones de carácter técnico, en relación con el ejercicio de opciones y



buruzko erreferentziak zuzentzeko.

Azkenik, beste bi aldaketa egiten dira araudia Ekonomia Itunaren idazketa berrira egokitzeko, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onartzen duen 2002ko maiatzaren 23ko 12/2002 Legea aldatzen duen 2017ko abenduaren 28ko 10/2017 Legea onartzearen ondorioz. Batetik, Bizkaian egindako lan edo zerbitzuen ondoriozko atxikipen eta konturako sarrerei dagokienez, lehen, kontrakoaren frogarik ezean, ulertzen zen lanak Bizkaian egiten zirela baldin eta lurralde horretan bazegoen langilea atxikita zegoen lan-zentroa; bada, orain egoera hori «iuris et de iure» presuntzioa izango da. Presuntzio hori bera aplikatuko da telelanaren kasuan eta atzerrian egiten diren lan eta zerbitzuetan, bai eta ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan egiten direnetan ere. Bestetik, kasu gehiagotara zabaltzen dira ordainsari aktibo eta pasiboak direla-eta Estatuko Administrazioak egindako atxikipenak; jasotzaileak barik beste pertsona batek sortutako pentsioak ere ordainsari horien artean sartzen dira.

Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduari dagokionez, berritasun hauek egiten dira.

Lehenengo, arautzen da zer baldintza bete behar dituen Sozietateen gaineko Zergari buruzko 25.bis artikuluko 8. zenbakian finantza-gastu garbien kengarritasunerako ezarritakoa barik beste muga handiago bat aplikatzeko proposamenak, eta, zergapekoek eskatuta eragiketa lotuei buruzko akordioa egiteko prozeduraren hasierari dagokionez, informazio-betebehar gehigarriak ezartzen dira baldin eta balorazio-proposamena ebazteko informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gairik erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide.

para subsanar referencias normativas erróneas.

Por último, y con el fin de adecuar su contenido a la nueva redacción que presenta el Concierto Económico tras la aprobación de la Ley 10/2017, de 28 de diciembre, por la que se modifica el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, aprobado por la Ley 12/2002, de 23 de mayo, se incluyen dos modificaciones. Por una parte, y en relación con las retenciones e ingresos a cuenta procedentes de trabajos o servicios prestados en Bizkaia, el antiguo supuesto que presumía, salvo prueba en contrario, que los trabajos se entendían prestados en Bizkaia cuando en este territorio se ubicara el centro de trabajo al que estuviera adscrito el trabajador, se transforma en una presunción “iuris et de iure”. Esta misma presunción se aplicará a partir de ahora en el caso de teletrabajo y en los supuestos en que los trabajos o servicios se presten en el extranjero, o en buques, embarcaciones, artefactos navales o plataformas fijas en el mar. Por otra parte, se amplían los supuestos que siguen el régimen general en caso de retenciones relacionadas con las retribuciones, tanto activas como pasivas, incluidas las pensiones generadas por persona distinta del perceptor, satisfechas por la Administración del Estado.

En relación con el Reglamento del Impuesto de Sociedades, se introducen las siguientes novedades.

Primeramente, se regulan los requisitos que debe reunir la propuesta para la aplicación de un límite superior a la deducibilidad de los gastos financieros netos establecida en el apartado 8 del artículo 25.bis de la Norma del Impuesto de Sociedades y, en relación con el inicio del procedimiento para el acuerdo sobre operaciones vinculadas a solicitud de los obligados tributarios, se establecen obligaciones de información adicionales para los casos en los que la resolución de la propuesta de valoración deba ser objeto de intercambio de información con otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en virtud de un instrumento de asistencia mutua.



Era berean, izaera teknikoko aldaketa batzuk egiten dira, eta salbuespen bat egiten da soldata murrizten den kasurako, enplegua sortzeagatik kenkariari dagokionez.

Azkenik, zergari buruzko foru-arauaren VI. tituluko III. kapituluan ezarritako araubide berezia aplikagarri duten Espainiako zein Europako ekonomia-intereseko elkartzeek eta aldi baterako enpresa-elkarteez aurkeztu beharreko datu gehigarri batzuk sartzen dira, eta laugarren xedapen iragankorra gehitzen da, ekintzailatza sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko erreserba bereziari buruzkoa.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea lege eta dekretu hauek xedatutakoaren arabera egin dela: Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 141/2013 Foru Dekretua, azaroaren 19koa, generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioa egiteari buruzkoa.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2017ko urtarrilaren 17ko 2/2017 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2018ko urriaren 9ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Además, se realizan modificaciones de carácter técnico y se introduce una salvedad para el caso de reducción de salario en relación con la deducción por creación de empleo.

Finalmente, se incluyen datos adicionales a aportar por las agrupaciones de interés económico, españolas y europeas, y las uniones temporales de empresas a las que resulte de aplicación el régimen especial previsto en el Capítulo III del Título VI de la Norma Foral del impuesto, y se añade una nueva disposición transitoria cuarta referente a la reserva especial para el fomento del emprendimiento y el reforzamiento de la actividad productiva.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres de la Comunidad Autónoma del País Vasco y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, sobre la realización de la evaluación previa de impacto en función del género.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 2/2017, de 17 de enero, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en su reunión de 9 de octubre de 2018,

XEDATZEN DUT:

DISPONGO:



1. artikulua. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudia aldatzea; Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen araudi hori.*

Artículo 1. *Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril.*

Aldaketa hauek egiten dira *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudian, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2014ko apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen:*

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril:

Bat. Aldatu egiten I. titulua, eta honela idatzita geratzen da:

Uno. Se modifica el Título I, que queda redactado en los siguientes términos:

«I. TITULUA. LEKUALDATUTAKO LANGILEENTZAKO ARAUBIDE BEREZIA»

“TÍTULO I RÉGIMEN ESPECIAL PARA TRABAJADORES Y TRABAJADORAS DESPLAZADAS”

Bi. Aldatu egiten da 1. artikulua, eta honela geratu da idatzita:

Dos. Se modifica el artículo 1, que queda redactado en los siguientes términos:

**«1. artikulua. Lekualdatutako langileentzako araubide bereziaren edukia.**

**“Artículo 1. Contenido del régimen especial para trabajadores y trabajadoras desplazadas.**

1. Zergari buruzko foru-arauaren 56.bis. 1.a) artikuluan xedatutako ondorioetarako, bereziki kualifikatutako lanak izango dira arloan indarrean dagoen araudiaren arabera Gizarte Segurantzaren araubide orokorraren 1. kotizazio-taldeko kategoria profesionala duten langileek eginikoak, zuzenean eta nagusiki hurrengo zenbakian jasotzen diren jarduerekin lotura dutenak.

1. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 56.bis.1.a) de la Norma Foral del impuesto, tendrán la consideración de trabajos especialmente cualificados aquellos realizados por personas trabajadoras con una categoría profesional comprendida en el Grupo de Cotización 1 del Régimen General de la Seguridad Social, conforme a lo dispuesto por la normativa vigente al efecto, relacionados, directa y principalmente, con las actividades a que se refiere el apartado siguiente.

2. Jarduera hauek joko dira ikerketa- eta garapen-jardueratzat, zientifikotzat edo izaera tekniko edo finantzariokotzat, eta halako bat egiteak eskubidea emango du foru-arauaren 56.bis artikuluan ezarritako araubide berezia aplikatzeko:

2. Tendrán la consideración de actividades de investigación y desarrollo, científicas o de carácter técnico o financiero cuyo desarrollo da derecho a la aplicación del régimen especial establecido en el artículo 56.bis de la Norma Foral, las que se detallan continuación:

a) Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru

a) Las actividades de investigación y desarrollo que



Arauaren 62.2. artikuluan xedatutakora egokitzen diren ikerketa- eta garapen-jarduerak.

b) Jarduera zientifiko edo tekniko hauek:

1.. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauak 63.2 artikuluan xedatutakora egokitzen direnak.

2.. Garapen iraunkorraren eta ingurumenaren zaintza eta hobekuntzaren arloko proiektuei lotutako jarduerak, baldin eta haien helburua badago Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 65.2.b) artikuluko a') letratik e') letrara bitartean adierazitakoen artean.

3.. «Enpresa berritzaileak» diren entitateentzat emandako jarduerak; enpresa berritzaileak dira Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduaren 2. 80.a) artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituztenak artikuluko horretan adierazitako produktu, zerbitzu eta prozesuei dagokienez.

4.. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren 53.2 artikuluko c) letran jasotako helburua betetzen duten entitateei egindako jarduerak; helburu hori enpresa sustatzea eta ekoizpen-jarduera sendotzea da.

Hain zuzen ere, ulertuko da enpresek helburu hori betetzen dutela baldin eta jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzeko edo lehendik daudenak finkatzeko edo enplegu iraunkorrak sortzeko enpresa-proiektu sendoak egiten badituzte.

Ondorio horietarako, langilea zerbitzuak ematen dabilen entitateak justifikatu beharko du bere jardueraren ondorioz betetzen dela enpresa sustatzeko eta ekoizpen-jarduera sendotzeko helburua.

5..Enpresa-proiektu berri bat egiteko hasierako fasean edo garapen-fasean dauden entitateentzat

se ajusten a lo dispuesto en el artículo 62.2 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

b) Las actividades científicas y de carácter técnico que se relacionan a continuación:

1º. Aquellas que se ajusten a lo dispuesto en el artículo 63.2 de la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades.

2º. Aquellas relacionadas con proyectos dentro del ámbito del desarrollo sostenible y de la protección y mejora medioambiental que tengan como objeto alguno de los indicados en las letras a') a e') del artículo 65.2.b) de la Norma Foral del Impuesto Sobre Sociedades.

3º. Aquellas que se presten para entidades que se consideren "empresas innovadoras", por cumplir los requisitos establecidos en el artículo 2. 80.a) del Reglamento (UE) nº 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014, relacionados con el desarrollo de los productos, servicios y procesos referidos en dicho apartado.

4º. Aquellas que se presten a entidades que cumplan con la finalidad de promoción empresarial y reforzamiento de la actividad productiva a que se refiere la letra c) del artículo 53.2 de la Norma Foral del Impuesto Sobre Sociedades.

En particular, se entenderá que cumplen dicha finalidad las empresas que implementen proyectos empresariales relevantes que supongan el desarrollo de nuevas actividades, productos o mercados, la ampliación o consolidación de otros existentes o la creación de empleos estables.

A estos efectos, la entidad para la que preste servicios la persona trabajadora deberá justificar el cumplimiento de la finalidad de promoción empresarial y reforzamiento de la actividad productiva resultante de su actividad.

5º. Aquellas que se presten para entidades que se encuentren en la etapa inicial de desarrollo de un



eginiko jarduerak, betiere hazteko ahalmen handia duten mikroenpresak edo enpresa txiki edo ertainak badira.

c) Izaera finantzarioko jarduerak. Finantza-entitateentzat edo finantza-arloan era guztietako entitateentzat eginiko lanak izango dira; kasu bietan, entitateek iraunkortasunari edo kudeaketa ez-finantzarioaren egoerari buruzko txosten bat izan behar dute argitaratua, eta aditu independente batek egiaztatu behar izan du txostena.

Informazio hori ematean, enpresek hauek izan behar dituzte oinarri: esparru nazionalak, European Batasunaren esparruak, nazioarteko esparruak (esaterako, Nazio Batuen Munduko Ituna), enpresei eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak, Nazio Batuen esparruan «babestu, errespetatu eta konpontzeko» praktikan jartzeko direnak, enpresa multinazionalentzako Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) gidalerroak, Estandarizaziorako Nazioarteko Erakundearen (ISO) 26000 araua, Enpresa multinazionalen eta gizarte-politikari buruzko Hiru Aldeko Printzipio Adierazpena, Lanaren Nazioarteko Erakundearena; Iraunkortasun-txostenak aurkezteko Munduko Ekimena, GRIrena (GRI Sustainability Reporting Standards); eta onartuta dauden nazioarteko beste esparru batzuk.

3. Zergari buruzko foru-arauaren 56.bis.2b) artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, hauek izango dira lekualdatzearen ondoriozko gastu kengarriak:

a) Zergaduna Bizkaian finkatzeko beharrezkoak diren bidaia-gastuak eta etxez aldatzearen ondoriozkoak, bai eta zergadunaren familia-unitateko kideenak ere. Atal honetan jasoko dira jatorrizko herrialdera eginiko bidaien gastuak, baina gehienez ere bi urtean. Kasu honetan, zenbateko kengarria izango da Bizkaitik jatorrizko herrialdera

nuevo proyecto empresarial o en su fase de desarrollo, siempre que se trate de microempresas y pequeñas y medianas empresas con alto potencial de crecimiento.

c) Actividades de carácter financiero. Se entenderán incluidos los trabajos prestados para entidades financieras o aquellos trabajos en el área financiera prestados para todo tipo de entidades, siempre que en ambos casos dichas entidades hayan publicado un informe de sostenibilidad o estado de gestión no financiera y éste haya sido objeto de verificación por parte de un experto independiente.

Al facilitar esta información, las empresas deben basarse en marcos nacionales, marcos de la Unión Europea, o en marcos internacionales tales como el Pacto Mundial de las Naciones Unidas, los Principios Rectores sobre las empresas y los derechos humanos que ponen en práctica el marco de las Naciones Unidas para «proteger, respetar y remediar», las Líneas Directrices de la Organización de Cooperación y Desarrollo Económicos (OCDE) para Empresas Multinacionales, la norma (ISO) 26000 de la Organización Internacional de Normalización, la Declaración tripartita de principios sobre las empresas multinacionales y la política social de la Organización Internacional del Trabajo, la Iniciativa Mundial de Presentación de Informes de Sostenibilidad del GRI (GRI Sustainability Reporting Standards), u otros marcos internacionales reconocidos.

3. A los efectos de lo dispuesto en el artículo 56.bis.2b) de la Norma Foral del impuesto, tendrán la consideración de gastos deducibles originados como consecuencia del desplazamiento los que se detallan a continuación:

a) Gastos de viaje y mudanza necesarios para el establecimiento en Bizkaia del o de la contribuyente, así como de los miembros de su unidad familiar. Se entenderán incluidos en este apartado los gastos correspondientes a viajes realizados a su país de origen, con el límite de dos al año. A este respecto, el importe deducible será el que se corresponda con el



joateko erabilitako garraioaren prezioari dagokiona.	precio del transporte utilizado para desplazarse desde Bizkaia hasta el citado país de origen.
b) Zergadunaren ondorengoak Bizkaian eskolatzearen ondoriozko gastuak, zergari buruzko foru-arauaren 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea sortzen dutenak.	b) Gastos derivados de la escolarización en Bizkaia de las y los descendientes del o de la contribuyente que le generen el derecho a aplicar la deducción establecida en el artículo 79 de la Norma Foral del Impuesto.
c) Zergadunak edo haren familia-unitateko edozein kidek eginiko euskara- eta/edo gaztelania-ikastaroen ondoriozko gastuak.	c) Gastos por cursos de euskera y/o castellano seguidos por el o la contribuyente u otro miembro de su unidad familiar.
d) Zergadunak Bizkaian duen ohiko etxebizitzaren errentamenduaren ondoriozko gastuak, bai eta etxebizitza horri lotutako zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeari buruzkoak ere.»	d) Gastos por el arrendamiento de la que constituya la vivienda habitual del o de la contribuyente en Bizkaia, así como los gastos originados por la contratación de servicios o suministros vinculados a la misma.”
Hiru. Edukirik gabe geratzen dira 2., 3., 4., 5. eta 6. artikulua.	Tres. Se dejan sin contenido los artículos 2, 3, 4, 5 y 6.
Lau. Aldatu egiten da 12.1 artikulua q) letra. Hona nola geratzen den idatzita:	Cuatro. Se modifica la letra q) del artículo 12.1, que queda redactada en los siguientes términos:
“q) Lurralde administrazio publikoek ondasun berriak eskuratzeko edo instalazioak berritzeko ematen dituzten gainerako laguntza publiko guztiak, aurreko o) eta p) letretan adierazitako xede bera dutenak.”	“q) Otras ayudas públicas prestadas por las Administraciones Públicas Territoriales cuyo objeto sea la ayuda a la renovación de bienes o instalaciones y respondan a idéntica finalidad que las señaladas en las letras o) y p) anteriores.”
Bost. Aldatu egiten da 78.1 artikulua a) letra. Hona nola geratzen den idatzita:	Cinco. Se modifica la letra a) del artículo 78.1, que queda redactada en los siguientes términos:
«a) 105. artikuluko a), d), e), f), g) eta h) letretako aukerak eta zergari buruzko foru-arauaren 56.bis artikuluan lekualdatutako langileentzat jasotako araubide berezia aplikatzeko aukera zergaren autolikidazioa egiteko borondatezko epea amaitu arte aldatu ahal izango dira, edo Zerga	“a) Las opciones a que se refieren las letras a), d), e), f), g) y h) del artículo 105 mencionado, así como la opción por la aplicación del régimen especial para trabajadores y trabajadoras desplazadas recogido en el artículo 56.bis de la Norma Foral del impuesto, hasta la fecha de finalización del período voluntario



Administrazioak behin-behineko likidazioa egin arte, baldin eta behin-behineko likidazioa borondatezko epe hori amaitu aurretik gertatuz gero.

de autoliquidación del impuesto o hasta la fecha en que se practique liquidación provisional por parte de la Administración tributaria, si esta fuera anterior.”

Sei.. Aldatu egiten da 79.2. artikuluko a) letra, eta honela geratzen da idatzita:

Seis. Se modifica la letra a) del artículo 79.2, que queda redactada en los siguientes términos:

«a) Euskal Autonomia Erkidegoan ematen diren lanen eta zerbitzuen ondoriozkoak.

“a) Los procedentes de trabajos o servicios que se presten en Bizkaia.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Bizkaian edo Bizkaian eta beste edozein lurralde historikotan egiten badira, edo ezin bada zehaztu non egiten diren, ulertuko da lanak edo zerbitzuak Bizkaian egiten direla baldin eta langilea atxikita dagoen lan-zentroa Bizkaian badago.

En el supuesto de que los trabajos o servicios se presten en territorio común y en Bizkaia o en Bizkaia y en cualquiera de los otros Territorios Históricos, o no se pueda determinar el lugar en donde se realicen los trabajos o servicios, se considerará que los trabajos o servicios se prestan en Bizkaia cuando en este territorio se ubique el centro de trabajo al que esté adscrita la persona trabajadora.

Era berean, telelanaren kasuan, atzerrian egiten diren lan eta zerbitzuetan, eta ontzi handietan, itsasontzi txikietan, itsas artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan egiten direnetan, ulertuko da lanak edo zerbitzuak Bizkaian egiten direla baldin eta langilea atxikita dagoen lan-zentroa Bizkaian badago.»

Asimismo, en el caso de teletrabajo y en los supuestos en que los trabajos o servicios se presten en el extranjero, o en buques, embarcaciones, artefactos navales o plataformas fijas en el mar se entenderán prestados en Bizkaia cuando el centro de trabajo al que esté adscrita la persona trabajadora este ubicado en dicho territorio.”

Zazpi. Berridatzi egiten da 79. artikuluko 3. zenbakia; honela geratzen da idatzita:

Siete. Se da nueva redacción al apartado 3 del artículo 79, que queda redactado en los siguientes términos:

«3. Bizkaiko Foru Aldundiari ez dagokio Estatuaren Administrazioak bere funtzionarioei edo lan edo administrazio araubideko langileei emandako ordainsari aktiboen zein pasiboen atxikipenak egitea, hartzailea ez den beste pertsona batek sortutako pentsioak barne, salbu eta Bizkaian dauden erakunde autonomo, enpresa-entitate publiko, Estatuko merkataritza-sozietate, Estatuari atxikitako partzuergo, Estatuko fundazio, transferitu gabeko unibertsitate publiko eta portu-

“3. No corresponderán a la Diputación Foral de Bizkaia las retenciones relacionadas con las retribuciones, tanto activas como pasivas, incluidas las pensiones generadas por persona distinta de la perceptora, satisfechas por la Administración del Estado a las personas funcionarias y empleadas en régimen de contratación laboral o administrativa, salvo las personas funcionarias y empleadas de Organismos autónomos y entidades públicas empresariales, Sociedades mercantiles estatales,





agintaritzetako funtzionario eta enplegatuei eginikoak.

Consortios de adscripción estatal, Fundaciones estatales, Universidades públicas no transferidas, Autoridades Portuarias de los puertos que se encuentren en territorio de Bizkaia.”

Zortzi. Aldatu egiten da 106.1. artikuluko bigarren paragrafoa, eta honela geratzen da idatzita:

Ocho. Se modifica el segundo párrafo del artículo 106.1, que queda redactado en los siguientes términos:

«Hala ere, aurreko paragrafoan aipatzen diren aitortpena eta sarrera —aurre-aurreko hilean atxikitako eta kontura sartutako zenbatekoei dagozkienak, alegia— hil bakoitzeko lehenengo hogeita bost egun naturaletan egin behar dira, baldin eta konturako sarrera egin behar duenak edo atxikitzaileak Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Erregelamenduaren 71. artikuluko 3. zenbakiko 1. eta 2. azpizenbakietan aipatutako inguruabarrak betetzen badituzte.»

“No obstante, la declaración e ingreso a que se refiere el párrafo anterior se efectuará en los veinticinco primeros días naturales de cada mes, en relación con las cantidades retenidas y los ingresos a cuenta que correspondan por el mes inmediato anterior, cuando se trate de retenedores u obligados en los que concurran las circunstancias a que se refieren los números 1.º y 2º del apartado 3 del artículo 71 del Reglamento del Impuesto sobre el Valor Añadido.”

2. artikulua. *Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretua.*

Artículo 2. *Reglamento del Impuesto sobre Sociedades, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre.*

Aldaketa hauek egiten dira Sozietateen gaineko Zergari buruzko Erregelamenduan, zeina Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko abenduaren 23ko 203/2013 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen:

Se introducen las siguientes modificaciones en el Reglamento del Impuesto sobre Sociedades aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 203/2013, de 23 de diciembre:

Bat. 8.bis artikulua gehitzen da; hau da haren edukia:

Uno. Se añade un nuevo artículo 8.bis, con el siguiente contenido:

«8.bis artikulua. **Finantza-gastuen kengarritasunari muga handiago bat aplikatzeko proposamena.**

“Artículo 8.bis. **Propuesta para la aplicación de un límite superior a la deducibilidad de gastos financieros.**

1. Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 8. zenbakian jasotako kasuetan, erregelamendu honen 24. artikulutik 28. artikulura ezarritako

1. En los supuestos a que se refiere el apartado 8 del artículo 25.bis de la Norma Foral del impuesto, el procedimiento para la determinación previa de un



arauen arabera egingo da artikuluko 1. zenbakian finantza-gastuen kengarritasunerako ezarritakoa barik beste muga handiago bat aplikatzeko prozedura, artikuluko honetan ezarritako berezitasunekin, eta muga berri hori oinarrituko da, hain zuzen, taldeak hirugarrenekin dituen finantza-gastu garbiek sozietate-taldearen mozkin operatiboan islatzen duten koefizientean.

2. Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 1. zenbakian finantza-gastu garbien kengarritasunerako ezarri den mugaren ordezkari handiagoko bat aplikatzea proposatu ahal izango diote zergapekoek Zerga Administrazioari, artikuluko 8. zenbakian ezartzen denarekin bat. Eskabide horrekin batera, honako dokumentazio hau aurkeztu behar da:

a) Entitatea parte den sozietate-taldearen deskribzioa.

b) Entitatearen urteko kontuak eta entitatea parte den sozietate-taldearen urteko kontu bateratuak.

c) Sozietate-taldeak hirugarrenekin dituen finantza-gastu garbien kalkulua eta xehetasuna.

d) Sozietate-taldearen mozkin operatiboaren kalkulua eta xehetasuna.

e) Zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikuluko 1. zenbakian finantza-gastu garbien kengarritasunerako ezarri den mugaren ordezkari proposatzen den muga handiagoa eta haren justifikazioa; muga hori aplikatzeko oinarri diren inguruabar ekonomikoak azpimarratuko dira.»

Bi. Aldatu egiten da 24. artikuluko 2. zenbakia, eta honela geratzen da idatzita:

2. Eskabidearekin batera zergari buruzko foru-arauaren 43. artikuluko 3. eta 4. zenbakietan aipatzen

límite superior a la deducibilidad de sus gastos financieros netos que el establecido en el apartado 1 del citado artículo basado en el coeficiente que representen los gastos financieros netos del grupo frente a terceros respecto del beneficio operativo del grupo de sociedades, se llevará a cabo siguiendo las normas establecidas en los artículos 24 a 28 de este Reglamento, con las especialidades establecidas en este artículo.

“2. Los obligados tributarios podrán presentar ante la Administración tributaria una propuesta para la aplicación de un límite superior a la deducibilidad de sus gastos financieros netos que el establecido en el apartado 1 del artículo 25.bis de la Norma Foral del impuesto, de acuerdo con lo dispuesto en el apartado 8 del mismo, con la que deberá aportarse la siguiente documentación:

a) Descripción del grupo de sociedades al que pertenece la entidad.

b) Cuentas anuales de la entidad y cuentas anuales consolidadas del grupo de sociedades al que pertenezca la entidad.

c) Cálculo y detalle de los gastos financieros netos del grupo de sociedades frente a terceros.

d) Cálculo y detalle del beneficio operativo del grupo de sociedades.

e) Límite superior a la deducibilidad de sus gastos financieros netos que el establecido en el apartado 1 del artículo 25.bis de la Norma Foral del impuesto que se propone y justificación del mismo, destacando las circunstancias económicas que deban entenderse básicas en orden a su aplicación.”

Dos. Se modifica el apartado 2 del artículo 24, con el siguiente contenido:

2. La solicitud deberá acompañarse de la documentación a que se refieren los apartados 3 y 4



den dokumentazioa aurkeztu behar da, balioespen-proposamenari aplikagarria bazaio; eskabidea kasuaren inguruabarretara egokitu behar da.

Balorazio-proposamenaren ebazpena dela-eta informazio-trukea egin behar bada beste estatu batzuekin edo nazioarteko edo nazioz gaindiko erakunde batzuekin, elkarren laguntzarako tresna bat dela bide, inguruabar hori berariaz adierazi behar da; nolana ere, prozedura ebazteko eskuduna den zerga-administrazioak ofizios har dezake aintzat inguruabar hori. Aurrekoaz gainera, datu hauek ere adierazi behar dira:

a) Entitate eskatzailea parte den merkataritzako taldearen edo talde fiskalaren identifikazioa; halaber jaso behar dira kontsultak eragindako erakunde ez-egoiliar guztien identifikazio fiskaleko zenbakiak edo, halakorik ezean, kode baliokideak.

b) Enpresa-jardueraren deskripzioa edo balorazio-proposamenean jasotako transakzioena zein transakzio-segidena (eginiko transakzioena edo egin beharrekoena). Edozelan ere, deskripzio hori egiterakoan erabat errespetatu behar dira sekretu komertzial, industrial edo profesionalaren arauketa eta interes publikoa.

c) Balorazio-proposamenaren xede diren transakzioen edo eragiketen eragina izan dezaketen estatuak.

d) Balorazio-proposamenaren ebazpenaren eragina izan dezaketen beste estatu batzuetako egoiliarrak.

e) Aplikatzekoa den elkarren laguntzari buruzko araudiaren ondorioz eska litezkeen beste datu batzuk.»

Hiru. Berridatzi egin da 38. artikuluko 1. zenbakia, eta 3. zenbakia gehitzen da. Honela geratzen dira idatzita:

del artículo 43 de la Norma Foral del impuesto, en cuanto resulte aplicable a la propuesta de valoración, y se adaptará a las circunstancias del caso.

En el caso de que la resolución de la propuesta de valoración deba ser objeto de intercambio de información con otros Estados o entidades internacionales o supranacionales en virtud de un instrumento de asistencia mutua, se declarará dicha circunstancia con carácter expreso, sin perjuicio de la apreciación de oficio por parte de la Administración tributaria competente para la resolución del procedimiento, y se consignarán, además, los siguientes datos:

a) Identificación del grupo mercantil o fiscal al que pertenece, en su caso, la entidad solicitante, incluyendo los números de identificación fiscal o, en su defecto, códigos equivalentes, de todas las entidades no residentes afectadas.

b) Descripción de la actividad empresarial o las transacciones o series de transacciones desarrolladas o a desarrollar a las que se refiere a la propuesta de valoración. En cualquier caso, dicha descripción se realizará con pleno respeto a la regulación del secreto comercial, industrial o profesional y al interés público.

c) Estados que pudieran verse afectados por las transacciones u operaciones respecto de las que se presenta la propuesta de valoración.

d) Personas residentes en otros Estados que pudieran verse afectadas por la resolución de la propuesta de valoración.

e) Otros datos que fueran exigibles por la normativa de asistencia mutua aplicable.»

Tres. Se da nueva redacción al apartado 1 y se añade un nuevo apartado 3 al artículo 38, con el siguiente contenido:



«1. Zergari buruzko foru-arauaren 66. artikuluko 1. zenbakiko hirugarren paragrafoan ezartzen den kenkari handitua aplikatu ahal izateko honako betekizun hauek bete behar dira:

a) Batetik, kontratazioa egiten den zergaldiaren amaieran lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetan lan-kontratu mugagabea duten langileen kopurua ez dadila murriztu hurrengo hiru urteetan amaitzen diren zergaldietan, eta, bestetik, lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetako langile kopuru hori kenkaria sortu den zergaldiaren hasierakoa baino handiagoa izatea eta dagoen hazkundera, gutxienez, kenkari handiagorako eskubidea eman duten kontratuen kopurua bestekoa izatea.

b) Zergari buruzko foru-arauaren 66. artikuluko 2. zenbakiko bigarren paragrafoan aipatzen den langile kopurua (lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten taldeetan lan-kontratu mugagabea duten langileena) kontratazioak egin aurreko zergaldikoa baino handiagoa izan behar da, eta dagoen hazkundera, gutxienez, kenkari handiagorako eskubidea eman duten kontratuen kopurua bestekoa izan behar da. Horretarako guztirako, artikuluko honetako 2. zenbakian ezarritako araua aplikatuko da.

Zenbaki honetan ezarritako betekizunak betetzen ez badira, zergadunak ez-betetzea gertatzen den zergaldiko autoliquidazioan sartu beharko du kenkaria handitzearen ondoriozko kuota, bai eta horri guztiari dagozkion berandutze-interesak ere.»

«3. Ez da betegabetzat hartuko zergari buruzko foru-arauaren 66. artikuluko 2. zenbakiko azken paragrafoan ezarritako baldintza baldin eta soldataren murrizketa bada langileak soldaten

“1. Para que sea de aplicación la deducción incrementada en virtud de lo dispuesto en el párrafo tercero del apartado 1 del artículo 66 de la Norma Foral del impuesto, será necesario que se cumplan los siguientes requisitos:

a) Que no se reduzca el número de personas trabajadoras con contrato laboral indefinido de colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo existente a la finalización del periodo impositivo en que se realiza la contratación durante los periodos impositivos concluidos en los tres años inmediatos siguientes y que dicho número de personas trabajadoras con contrato laboral indefinido de colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo sea superior al existente al principio del periodo impositivo en que se genera la deducción, al menos, en las mismas unidades que el número de contratos que dan derecho a la deducción incrementada.

b) Que el incremento del número de personas trabajadoras con contrato laboral indefinido de colectivos de especial dificultad de inserción en el mercado de trabajo a que se refiere el segundo párrafo del apartado 2 del artículo 66 de la Norma Foral del impuesto sea superior al existente en el período impositivo anterior a aquél en el que se realizaron dichas contrataciones, al menos, en las mismas unidades que el número de contratos que dan derecho a la deducción incrementada, siendo aplicable, a estos efectos, la regla establecida en el apartado 2 de este artículo.

En el caso de incumplimiento de los requisitos establecidos en el presente apartado, el contribuyente deberá incluir, en la autoliquidación correspondiente al período impositivo en que se hubiera producido el incumplimiento, la cuota derivada del incremento de la deducción junto con los intereses de demora correspondientes.”

“3. No se entenderá incumplido el requisito establecido en el último párrafo del apartado 2 del artículo 66 de la Norma Foral del impuesto cuando la reducción de salario sea consecuencia del



gutxipen proportzionala duen lanaldiaren murrizketarako eskubidea erabiltzearen ondorioa (2015eko urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onetsitako Langileen Estatutuaren Legearen testu bateginaren 37. artikulua 4. artikulutik 8. artikulura jasotzen da eskubide hori).»

Lau. Aldatu egiten da 41. artikuluko 1. zenbakiko b) letra; hau da haren edukia

“b) Kontzeptu hauengatik egotzi beharreko kopuruen zenbateko osoa:

1. Kontabilitate-emaitza.

2. Interes ekonomikoko elkartzean zergaldian kenkari gisa aplikatu ez diren gastu finantzario garbiak, zergari buruzko foru-arauaren 25.bis artikulua arabera betiere.

3. Zerga-oinarria.

4. Zergapetze bikoitza saihesteko kenkariaren oinarria, errentak sortu dituen entitatearen mota eta haren gaineko partaidetza-portzentajea.

5. Zergari buruzko foru-arauaren V. tituluko III. kapituluaren ezarritako kenkariaren oinarria eta ekonomia-intereseko elkartzeari aplikagarriak zaizkion gainerako kenkariena, salbu eta zergari buruzko foru-arauaren 62. artikulutik 64 artikulura ezarritako kenkariaren oinarria, hain zuzen, bazkideak elkartzeari egindako ekarpenak kontabilitate-irizpideen arabera ezaugarri bereziko ondare-tresna gisa kalifikatu behar diren kasurako.

6. Ekonomia-intereseko elkartzeari dagozkion atxikipenak eta konturako sarrerak.»

Bost. Xedapen iragankor bat gehitzen da, laugarrena; hau da haren edukia:

«Laugarrena. Enpresen kapitalizazioa sustatzeko konpentsazioa eta karga-tasen murrizketa.

ejercicio por parte de la persona trabajadora del derecho a la reducción de jornada con disminución proporcional de salarios que le reconocen los apartados 4 a 8 del artículo 37 del texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores, aprobado por medio del Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre.”

Cuatro. Se modifica la letra b) del apartado 1 del artículo 41, con el siguiente contenido:

“b) Importe total de las cantidades a imputar, relativas a los siguientes conceptos:

1.º Resultado contable.

2.º Los gastos financieros netos que, de acuerdo con el artículo 25.bis de la Norma Foral del impuesto, no hayan sido objeto de deducción en la Agrupación de Interés Económico en el período impositivo.

3.º Base imponible.

4.º Base de la deducción para evitar la doble imposición, tipo de entidad de la que proceden las rentas y porcentaje de participación en aquélla.

5.º Base de las deducciones establecidas en el Capítulo III del Título V de la Norma Foral del impuesto y cualesquiera otras que resulten de aplicación a la agrupación de interés económico, excepto la base de las deducciones previstas en los artículos 62 a 64 de la Norma Foral del impuesto respecto de los socios cuyas aportaciones a la agrupación de interés económico deban ser calificadas como instrumentos de patrimonio con características especiales conforme a los criterios contables.

6.º Retenciones e ingresos a cuenta correspondientes a la agrupación de interés económico.”

Cinco. Se añade una nueva disposición transitoria cuarta, con el siguiente contenido:

“Cuarta. Compensación para el fomento de la capitalización empresarial y reducción de los tipos



#### de gravamen.

Zergari buruzko foru-arauaren 51. artikuluko 3. zenbakian xedatutakoari lotuta, hau ez da ondare garbiaren murrizketa izango ondorio fiskaletarako: entitateari aplikatzekoa den karga-tasa murriztearen ondorioz zerga geroratuen aktiboen zenbaketaren aldaketak eskusiboki sortutakoa baldin eta murrizketa hori bada zergari buruzko foru-arauaren ondorioa.»

No tendrá la consideración de reducción del patrimonio neto a efectos fiscales en relación con lo dispuesto en el apartado 3 del artículo 51 de la Norma Foral del impuesto, la derivada exclusivamente de la modificación del importe de los activos por impuesto diferido como consecuencia de la reducción del tipo de gravamen aplicable a la entidad cuando dicha reducción sea el resultado de una modificación de la Norma Foral del impuesto.”

Azken xedapenetatik lehena. *Arauk emateko gaikuntza.*

Disposición final primera. *Habilitación normativa.*

Baimena ematen zaio Ogasun eta Finantzen foru diputatuari, foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

Azken xedapenetatik bigarrena. *Indarrean jartzea.*

Disposición final segunda. *Entrada en vigor.*

Foru-dekretu hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean, eta ondoren adierazten diren ondorioak izango ditu:

El presente Decreto Foral entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial de Bizkaia y tendrá los efectos que se indican a continuación:

- 1. artikuluan xedatutakoak 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak, salbu eta Bost eta Sei zenbakietan ezarritakoari dagokionez; kasu horretan, 2017tik abenduaren 30etik aurrera izango ditu ondorioak.

- Lo dispuesto en el artículo 1 tendrá efectos desde el 1 de enero de 2018, salvo en relación a lo establecido en sus apartados Cinco y Seis, cuyos efectos se iniciarán el 30 de diciembre de 2017.

Zehatzago, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuak dituzten langileei aplikatuko zaie lekualdatutako langileentzako araubide bereziari buruzko araudia, eta Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren autoliquidazioa aurkeztean erabili beharko da araudia aplikatzeko aukera.

En particular, la regulación relativa al régimen especial para trabajadores y trabajadoras desplazadas será de aplicación a las personas trabajadoras con contratos formalizados a partir del 1 de enero de 2018, y la opción por su aplicación deberá ejercitarse en el momento de presentar la autoliquidación del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, kontratuak formalizatzeko datari buruzko baldintza

Sin perjuicio de lo dispuesto en el párrafo anterior, el requisito relativo a la fecha de formalización de



ez zaie aplikatuko 2018ko urtarrilaren 1ean Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren tributaziorako araubide bereziko epea agortu ez duten zergadunei (zerga horri buruzko foru arauaren 4. artikuluko 3. zenbakia, 2017ko abenduaren 31n indarrean dagoen idazketan). Zergadun horiek lekualdatutako langileentzako araubide bereziari buruzko araubideari heldu ahal izango diote (zergari buruzko foru arauaren 56.bis artikulua), epe hori amaitu arteko aldian.

- 2. artikulua 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango ditu ondorioak.

Bilbon, 2018ko urriaren 9an

Ahaldun Nagusia

El Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ

los contratos no será de aplicación a los contribuyentes que a 1 de enero de 2018 no hubieran agotado el periodo de duración del régimen especial de tributación por el Impuesto sobre la Renta de no Residentes establecido en el apartado 3 del artículo 4 de la Norma Foral del impuesto en su redacción vigente a 31 de diciembre de 2017, que podrán acogerse al régimen especial 9 dicho periodo.

- Lo dispuesto en el artículo 2 tendrá efectos para los periodos impositivos iniciados a partir de 1 de enero de 2018.

En Bilbao, a 9 de octubre de 2018.

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ